

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza berrantolatzea eta aldatzea**

2020ko ekainaren 17an egindako bilkura berezian, hasierako onespina eman zitzaien honako hauek direla eta ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza berrantolatzeari eta aldatzeari: zerbitzu publikoak ematea eta administrazio jarduerak egitea, hain zuzen ere, fotokopiak, faxa eta kopiak CDan egitea; kirol jarduerak antolatzea; fitness aretoa; kirol instalazioak alokatzea; kultura jarduerak antolatzea; txangoak, eta kultura instalazioak alokatzea.

Eta hori jendaurrean jartzen da, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten alegazioak idatziz aurkeztu ahal izan ditzaten, 30 egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsiko da ordenantza aldaketa, eta indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da aldatu edo indargabetu arte.

Legutio, 2020ko ekainaren 17a

*Alkatea*

**JON ZUAZO ZUBERO**